

ZEHARKAKORIK NAHI EZ DUTEN TOKIA.—Elgetan bada *zehir* eta *zihar* ukatzen den toki bat. Gainera, gezurra badirudi ere, kasu hontan ez da H letraren kontua, bertako ahozkeraz *ziar* delakoa bera ere ukatzen denezkero.

Karabieta lepoa, Egotxaega baserriak eta Lapurdi auzoaren tardean bada Larrabil deritzaion muñoa eta izen bereko baserriak San Juan gainekaldetxoan. Pasealeku ederra benetan, eguzkibegian (=egutera), ikuspegi atseginez. Ezagutu nahi duenak San Roke aldetik Lapurdirantza doan bidea harbeza eta ez da damutuko. Bide horri, bertakoek, Larrabil-ziarra deritzate. Duela zenbait urte, Gipuzkoako Diputazioak auzo eta baserrietara autobideak egiteko eman zituen dirulaguntzari esker, hor ere ideki zuten asfaltuzko bide zabala. Baina, laguntzok isilik uztekoak ez direnez, Diputaziokoek jarri zuten seinalea, era hontara iragarria: *Larrabil Sierra*.

Horregatik, euskararik ez zekiten mendizaleek hasi ziren inguru apal hari *Sierra de Larrabil* deitzen.

Baina denborak aldatu dira eta Euskal Herrian euskaraz behar denez, kendu dute seinale hura beste berri bat jartzeko. Ez dakit noren eraginez, elgetarrenez, bertako Udalarenaz edo Diputazioarenaz; dena dela, ez zen itxurazkoa gure geografian arrotz kutsudun izenik onartzea eta aldatu zuten. Baina, askoren ustez *ze* baino euskaldunagoa da *tze*, eta aburu horren arabera sortu da orain dagoen seinalea *Larrabil-tzearra*. Izan ere; zer arraio! Zuzen joateko zeharkakoa ez bait da beharrezkoa.